



KONTAKIZUN LABURREN 3. LEHIAKETA

Zurrumuruen Aurka, J SARTU ATERPEAN!



Zurrumuruen | Bilboaren
Aurka | ZAs! | Zerbitzuak

2023ko irailaren 14an
10:00etatik 12:00etara
Bilboako Udalaren
Bilboako Udalaren

KONTAKIZUN LABURREN 3. LEHIAKETA

Zurumurruen **Aurka, SARTU ATERPEAN !**

Al fin y al cabo, todos los que viajan a pie, también hoy en día, sí, incluso hoy día sobre todo, si no corresponden a la imagen habitual del senderista aficionado, enseguida atraen hacia sí las sospechas del residente del lugar.

W. G. Sebald

Bilboko Udalaren zurumurruen aurkako estrategiatik, hitzaren eraldaketa-ahalmenaren aldeko apustua egiten jarraitzen dugu. Horrexegatik, "Zurumurruen aurka, sartu aterpean!" kontakizun laburren txapelketaren hirugarren edizioa martxan jarriko dugu.

Bidaiariak gara, istorio zoragarriak partekatzeke esperoan. Berdin da nondik zatozen eta nora iritsi nahi duzun: istorio bat kontatzera animatzen zaitugu, elkarbitzita aniztasunarekin sustatzen duena, etorkinei buruzko uste negatiboak aldatzen laguntzen duena, eta begirada berri bat eskaintzen duena.

Migratzaileen irudipen berriak sortzera animatzen zaitugu; ausartu topikoak antzematen modu sortzailean lantzeko berriro, iraultzeko, buelta emateko galtzerdiak balira

bezala, zure irudimena izan dadila plaza berriari argia egingo dion sugarra. Jabetu dakizunaz eta azaldu zer egin dezakezun zeure kontakizunekin, narratiba berriak sor ditzakezulako imaginario pertsonalean eta kolektiboan.

Kontatu, kontatu dibertsitatea, ezberdintasunaren ekarpena, esperientziak eta bizikidetzaren partekatzearen aberastasuna. Idatzi eta eraldatu zeure hiria.

Bilbo, kulturarteko hiria: atzeritarren aurkako aurreiritzirik, zurumurrurik eta estereotiporik gabekoa.

Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzaren, Bizikidetzaren eta Jaietako Sailak, [Herritarren eta Aniztasunaren II. Udal Planaren](#) barruan, Zurumurruen aurkako kontakizun laburren III. lehiaketa antolatuko du, oinarri hauen arabera:

2019ko OINARRIAK

1. LEHIAKETAREN HELBURUA

Zurumurruen aurkako kontakizun laburren III. lehiaketa Bilboko Udalaren [Zurumurruen aurkako Proiektuaren](#) barruko ekintza da. Zurumurruen kontrako estrategia aldaketa soziala eragin nahi duen epe luzeko prozesua da eta bereizkeria prebenitu, bizikidetzaren hobetu eta dibertsitatearen indarra baliatu nahi ditu herritar guztien eta helburuko talde espezifikoaren arteko hautemateetan, jarretan eta jokabideetan aldatzeko eragiteko.

Aurkezten diren kontakizunetan proiektuaren gaiak helduko diete, proiektu horren zenbait eduki eta balio sartuta.

2. PARTE HARTZAILEAK

Nahi duten pertsona fisiko guztiek, 18 urtetik gorakoek, har dezakete parte, euren nazionalitatea edo bizilekua zein-nahi izanda ere.

3. GAIA

Zurumurruen aurkako edukiak eta balioak izango dira lehiaketaren gaiak: bizikidetzaren, kulturartekotasunaren, dibertsitatearen, arrazakeriaren aurkako borroka, estereoti-

poak, aurreiritziak, zurumurruek, notortasuna, errespetua, elkarrizketa, dibertsitatearen abantailak eta bere ekarpenak.

4. EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ

Hizkuntza modalitate bi daude: euskarazkoa eta gaztelaniazkoa. Ez da onartuko obra bere bi hizkuntzetan.

5. KONTAKIZUNEN EZAUGARRIAK

Lanak gehienez 4 orriko luzera izango dute eta Arial 12 edo antzeko letra-motan, tarte bikoitzarekin eta alde batetik idatziak izango dira. Originalak, argitaratu gabekoak eta lehenago beste lehiaketa batzuetan sarituak izan ez diren kontakizunak izango dira.

6. AURKEZTEKO ETA BIDALTZEKO ERA

Kontakizunak era elektronikoan aurkeztuko dira, sarean egokitutako plataformaren bidez. Helbidea:

http://www.bilbao.eus/concurso_antirumor

Lanak helbide elektroniko horren bidez aurkezteko epea 2019ko irailaren 1ean hasi eta 2019ko irailaren 30ean amaituko da.

7. EPAIMAHAI A

Berdintasun, Lankidetza, Bizikidetza eta jaietako Sailak izendatutako hiru kidek osatuko dute epaimahaia. Epaimahaiari laguntza teknikoa emateko eta idazkaritzako eginkizunak betetzeko lanak Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetza, Bizikidetza eta Jaietako Sailak teknikari batek egingo dituzte.

Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetza, Bizikidetza eta Jaietako Sailak oinarri hauek interpretatu ahal izango ditu beharrezkoa bada, jarduteko arauak finkatu eta sariak emateko edota, behar denean, eman gabe uzteko ahalmen osoa izango du.

Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 53. artikuluan oinarrituta, eta , Bilboko Udalaren Andrazkoen eta Gizonezkoen Arteko Aukera Berdintasunerako IV. Planaren jarduera-printzipioekin bat etorruta, epaimahaiaren osaerak emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioari erantzungo dio.

9. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Lehiaketara aurkeztutako kontakizunen balorazioa egiteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Kontakizuna bat etortzea lehiaketaren gaiarekin: bizikidetza, kulturartekotasuna, dibertsitatea, arrazakeriaren aurkako borroka, estereotipoak, aurreiritziak, nortasuna, errespetua, elkarriketa, dibertsitatearen abantailak.
- Literaturaren arloko irizpideak: originaltasuna, prosaren kalitatea, argumentuaren bilakaera, erritmoa, gaiaren tratamendua etab.

9. EPAIA

Epaimahaiak, epaia eman ondoren, saria emateko proposamena aurkeztuko dio Gobernu Batzordeari. Epaia irabazleei jakinaraziko zaie. Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da eta epaimahaiakideen gehiengo soilaren bidez hartua. Lehiaketa honetan parte hartzeak berarekin dakar oinarri guztiak onartzea.

Epaimahaiaren epaia irabazleei jakinaraziko zaie 2019. urtea amaitu baino lehen.

10. MODALITATEAK ETA SARIAK

Euskarazko kontakizunak:

- 1. saria:** 350 euro, garaikurra, kontakizuna argitaratzea lehiaketaren edizio batean eta argitalpen horren 2 ale.
- 2. saria:** 150 euro, garaikurra, kontakizuna argitaratzea lehiaketaren edizio batean eta argitalpen horren 2 ale.

Gaztelaniazko kontakizunak:

- 1. saria:** 350 euro, garaikurra, kontakizuna argitaratzea lehiaketaren edizio batean eta argitalpen horren 2 ale.
- 2. saria:** 150 euro, garaikurra, kontakizuna argitaratzea lehiaketaren edizio batean eta argitalpen horren 2 ale.

Garaikurra Iñaki Arce artistaren, izen bereko marrazketa eta pintura akademiako sortzailea eta irakaslea denaren, (esku-)lana da.

Finalistak: Zurrumurruen aurka, sartu aterpean! Kontakizun laburren III. Lehiaketan finalista geratu diren obren sorta bat aukeratu eta argitaratuko da.

11. SARI-BANAKETAKO EKITALDIA

Sariak beren-beregi Bilbon antolatuko den ekitaldi publikoan banatuko dira irabazleei eta parte-hartzaileei garaiz jakinaraziko zaie egunean.

12. ARGITARATZEA

Saritutako lanak Bilboko Udalaren jabetzakoak izango dira eta bere gain hartuko du obra horiek erakusteko, kopiatzeko edo argitaratzeko eskubidea. Horrek ez du egile-eskubiderik sortzen, ezta eskatzeorik ere. Lanok Udalaren kultur ondarea gehitzeko direnez, ezingo dira ez saldu, ez erosi.

Saritutako eta aukeratutako kontakizunak “”Zurrumurruen aurkako Kontakizunen III. Lehiaketa. Sartu aterpean!” izeneko liburuan argitaratuko dira. Liburu hori eskuragarri egongo da sariak banatzeko ekitaldian.

13. AZKEN XEDAPENA

Oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen zerbait gertatuz gero, ordeko izaeraz, Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra aplikatuko da. Bilboko Udalbatzarrak 2016ko ekainaren 30ean onartu zuen eta 2016ko uztailaren 20ko 138 zenbakiko BAOn argitaratu zuten ordenantza orokor hori.